

ESPAINIAREN AKATSAK:

Doinua: Batetikan korrozka

1): Ttipi ttpa noa ni
Beasain aldera
Txapelketa hontako
Bertsok egitera
Bideluzera joan naiz
Gaia pentsatzera
Gero Murumendira
han inspiratzera
Espainaren akatsak
Bertsoz idaztera

2): Barcnas izan genun
Lehena ostutzen
Haziendakoa zan
Dirua lapurtzen
Ahal zuna baino gehio
Etzan ez gelditzen
Besteak bitartean
ERE-ak sufritzen
Eta orain kartzelan
Earki bizitzen

3): Bertso honetan dator
Gure Urdangarin
Iñakik lapurtzen zon
Asko eta arin
Holako bat bakarrik
Jaio da Euskadin
Honek monarkiari
kalte ta eragin
PP-koak Camps eta
Jaume Matasekin

4): Orain dator Rajoyen
Istori zikina
Hainbeste pertsonari
egin dio mina
Bankiantzat dirua
Lapurtu jakina
Hori da presidente
Honen zeregina
gurera ekarri du
Mixerri gordina

5): Wert edukazioko
Ministro txarrena
Ero guztietatik
Bera eroena
Guri LOMCE jartzea
asmo okerrena
Orain protestan dago
Gazte jende dena
Hoi da ikaslek dugun
Kezka handiena

6): Hau estatu pobrea
Basuraz betea
Lanbidera joatea
Denbora galtzea
Guk behar deguna da
Espainia uztea
Independizatzea
aske izatea
Denen arten estatu
Libre bat sortzea

Egilea: negu